



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

EKONOMIA ETA OGASUN BATZORDEA

Eguena, 2019/01/10

## **Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak 2016ko Bizkaiko Kontu Orokorraren garbitasuna baieztu dau**

Jose Ángel Quintanilla Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko Presidenteordeak, 2016ko Bizkaiko Kontu Orokorraren Fiskalizazio Txostenean emondako azalpenak baieztu ditu. HKEE-TVCPko ordezkaria EH Bildu taldeak eskatuta etorri da batzordera, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeko talde politikoek planteatutako galderei erantzuteko. Quintanillak azaldu dauenez, “Bizkaiko Lurralde Historikoa osatzen dabenerakundeek modu errazoituan bete eben ekonomia eta finantza jarduerara arautzen dauden legetasuna”.

Epaitegiaren eretziz, kontuek “ondarearen eta finantza egoeraren irudi leiala emoten dabe, eta baita jagokezan esku-diru fluxuen emaitzenak be”. Epaitegiko Presidenteordeak esan dauenez, kontuek eretxi garbia daukie, eta ez dabe kontabilitadeko doikuntza proposamenik planteetan. Quintanillaren berbetan, “Epaitegiak ez dau kontabilitadeko doikuntzarik proponiduten Diruzaintzako Soberakinaren edo Funtz Propioen aurrean, eta ez dau kontuan izan beharreko zalantzarik edo bestelango aitamen garrantzitsurik planteetan”.

Halanda be, badagoz ekonomia eta finantza jarduerara arautzen dauden lege betekizunaren aurreko salbuespenak. Bizkaiko Foru Aldundiak kontuan euki eban borondatezko erretiretearen, ezintasun iraunkorraren eta funtzionario izaerari uko egitearen ondoriozko primetarako PFEZaren salbuespena, zerga horretatik salbuetsita dagozan etekinak dirala ulertzean. Beaz-en, aldi baterako kontratu bi mugabako bilakatzea aukeraketa prozesu barik egin zan. Azpiegiturak erakundeak 6,5 milioi euroko kontratu bi esleitu ebazan, prozedurazko eta publizitadeko arauak jarraitu barik. Gizarte Urgazpeneko Foru Instrukzioak eta Enpresa Sektore Publikoak ez ebazan errespetu publizitade eta lehiakortasun printzipioak gas, energia elektriko, gatz... erosketa batzuetan eta, bukatzeko, Euskalduna Jauregiak eta Garbikerrek ezarritako gehieneko epeak gaintu ebazan aretoen muntaketa eta desmuntaketa eta ibilgailuen mantentze eta konponketa zerbitzuetan, hurrenez hurren.

Orokorrean, Txostenaren xedea 2016ko Bizkaiko Kontu Orokorraren ekonomia eta finantza jarduerara antolamendu juridikora egokitu izana egiaztatea da. Txostenak Foru Aldundiaren, Gizarte Urgazpeneko Foru Instrukzioaren, enpresa erakunde

publikoen, foru merkataritza soziedadeen eta foru fundazioen lege, kontabilidade eta finantza arloak aztertzen ditu. Bere azterketan, txostenak ez dau egindako gastuaren eraginkortasunaren eta efizientziaren azterketarik egiten, baina bai kudeaketan eta barruko kontrolean hautemandako gabezia.

Talde politikoentzako txandan, agerraldi eskaria egin dauen EH Bilduk, Foru Aldundiak txostenaren aholkuak apliketearen alde erakutsi eban eretxia gogoratuazo dau, baina esan dau Aldundiak oraindino ez dauela holangorik egin. “Oso kasu larria” be azpimarratu dau, Beaz, S.A.-ren kasuan oposizinerik ez egotea, eta baita Azpiegiturak prozedurazko arauak jarraitu barik esleipenak egin izana be.

Talde Mistoak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean lanpostuen zerrenda osoa argitaratzeko aukeraren ganean daukan eretxia galdetu deutso Quintanillari, dokumentu ofizial baliozkoan eta publikoan erregistrata geratu daiten eta agiri horretan argitaratzeko akordioa hartzeko, arazorik egon ez daiten.

Podemos Bizkaiak Aldundiak egindako alegazioen eta baita Ogasun eta Finantza Sailak Kontu Orokorraren barruan Enpresa Sektore Publikoaren auditoretzak jasotzeko aukeraren aurreko komenigarritasuna aztertzeko erabagiaren aurrean epaitegiak daukan balorazioa eskatu dau.

EAJ-PNV eta PSE baikor agertu dira Txostenaren ganean, eta modu positiboan balorau dabe Epaitegiak egindako Txostenak eta ganerako atalek erakusten daben kudeaketa zuzena.

Quintanillak erantzun dau epaitegiak, orokorrean, salbuespenez egiten dauela behar, “lege ordenamendutik kanpoko gaiak lantzen dira”. Esan dauenez, txostenean aitatzen ez diranak modu egokian egindako eta kudeatutako gaiak dira.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

COMISIÓN DE ECONOMÍA Y HACIENDA

Jueves, 10/01/2019

## **El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas confirma la limpieza de la Cuenta General de Bizkaia de 2016**

El vicepresidente del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, Jose Ángel Quintanilla, confirmó las explicaciones dadas en el Informe de Fiscalización sobre la Cuenta General de Bizkaia de 2016. El representante del TVCP compareció a solicitud del grupo EH Bildu para responder a las cuestiones planteadas por los grupos políticos de la Comisión de Economía y Hacienda. Quintanilla explicó que “las entidades que conforman el Territorio Histórico de Bizkaia cumplieron razonablemente la legalidad que regula su actividad económico-financiera”.

En opinión del Tribunal, las cuentas reflejan “la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera, así como los resultados de sus operaciones y de sus flujos de efectivo correspondientes”. El vicepresidente del tribunal afirmó que las cuentas tienen una opinión limpia y no propone ajustes contables. En palabras de Quintanilla “el Tribunal no propone ajustes contables al Remanente de Tesorería ni a los Fondos Propios, ni tampoco plantea incertidumbres ni otros hechos relevantes que deberían tenerse en cuenta”.

A pesar de ello existen algunas excepciones al cumplimiento legal que regula su actividad económico-financiera. La Diputación Foral de Bizkaia sí consideró la exención de IRPF para las primas de jubilación voluntaria, incapacidad permanente y renuncia a la condición de funcionario al considerarlas rendimientos de trabajo exentos de dicho impuesto. En Beaz la transformación de dos contratos temporales en indefinidos se realizó sin proceso de selección. Azpiegiturak adjudicó dos contratos por 6,5 millones de euros debiendo haber seguido las normas procedimentales y de publicidad. El Instituto Foral de Asistencia social y el Sector Público Empresarial no se respetaron los principios de publicidad y concurrencia en algunas compras referidas a gas, energía eléctrica, sal, etc. y, por último, tanto en el Palacio Euskalduna como Garbiker excedieron el plazo máximo establecido para los servicios de montaje y desmontaje de salas y de mantenimiento y reparación de vehículos respectivamente.

En líneas generales, el Informe tiene como objetivo verificar la adecuación al ordenamiento jurídico de la actividad económico financiera de la Cuenta General de

Bizkaia en 2016. En su haber, el informe analiza los aspectos legales, contables y financieros de Diputación Foral, Instituto Foral de Asistencia Social, entidades públicas empresariales, sociedades mercantiles forales y fundaciones forales. El informe no incluye un análisis de la eficacia y eficiencia del gasto realizado pero sí de las deficiencias detectadas en la gestión y el control interno.

En el turno para los grupos políticos, EH Bildu, autor de la solicitud de comparecencia, recordó la opinión favorable de la Diputación Foral a aplicar las recomendaciones del informe pero que la Diputación todavía no ha realizado. También ha remarcado “el caso muy grave” que supone la ausencia de oposiciones en el caso de Beaz, S. A. y las adjudicaciones de Azpiegiturak sin seguir las normas procedimentales.

El Grupo Mixto planteó a Quintanilla por la opinión del tribunal sobre la posibilidad de publicar en el Boletín de Bizkaia la relación de puestos de trabajo completa para que quede registrado en un documento oficial válido y público y llegar a un acuerdo de publicación en dicho documento con el objetivo de evitar problemas.

Podemos Bizkaia pidió la valoración del tribunal a las alegaciones realizadas por la Diputación en las salvedades realizadas y la decisión de Hacienda y Finanzas para analizar su conveniencia o no ante la posibilidad de que la Cuenta General incluyese las auditorías del Sector Público Empresarial.

Tanto el PNV como el PSE manifestaron su optimismo con el Informe y valoraron positivamente la gestión correcta que así declara el Informe realizado por el tribunal así como el resto de apartados.

En términos genéricos, Quintanilla respondió que el tribunal trabaja por excepción “Se tratan cuestiones distintas al ordenamiento legal”. Afirma que lo que no se menciona en el informe son asuntos realizados y gestionados correctamente.